

2023ko

JARDUN

MEMORIA



OLASO
DORREA
FUNDAZIOA



1. OLASO DORREA ETXEAREN MANTENUA

Olaso Dorreak bost mende baino gehiago dituen eraikina izatea mantenu eta berriztapen lanetan esfortzu eta inbertsio garrantzitsuak eskatzen ditu.

Beste lan batzuen artean, mantenu hori egiteko Fundazioak pertsona bat du kontratupean. Hona hemen ohiko garbiketak eta mantenuzko lanez gain 2023an egindakoen laburpena.

1.1 Lorategia

Olaso Dorrearen kanpoaldean dagoen lorategiko mantenu lanekin jarraitu dugu. Bergarako Udalarekin sinatutako hitzarmen baten ondorioz, lorategi honek erabilera publikoa du egunean zehar. Mantenu lan handiak Udaleko lorezaintza zerbitzuak egiten dituen arren, egunerokoan egin beharreko mantenu eta garbiketa Olaso Dorrea Fundazioak kontratupean duen langileak egiten du, hala nola hostoak kendu eta harri txintxarrak txukundu (astean bi aldiz), ureztatu, inausketa txikiak egin, huntzak atondu...



1.2 Teilatua

Urtean behin izaten den lez, aurten ere mantenuko lanak bete dira. Teilatu hodiak garbitu, belarrak eta goroldioa kendu, teilak eta pesebreak aztertu etab.

1.3 Kanpo eta barruko garbiketa lana orokorrak

Jardina, teilatua, atariak, barruko gelak eta saloiak, panteoia etab.



Hona hemen panteoia

1.4 Ezarritako protokoloari jarraituz urteroko ikuskapenen fitxak

2012. urtean amaitu zen eraikinaren zaharberitzearen ondorioetako bat eraikinaren mantenu sistematikoaren beharra izan zen. Izan ere mota honetako eraikin askok (publiko zein pribatuak) eraikinaren zati/leku garrantzitsuetan mantenu falta izaten dute, eta gabezia horren ondorioz iraganean jasandako kalteak errepikatu egiten dira. Garrantzitsua da teilatuko teilak egoera onean eta ondo kokatuta egotea, euri urak bideratzen dituzten kanaloak eta hobiak osorik eta garbi egotea, instalakuntza elektrikoa zein estolderia instalakuntza egoera onean mantentzea etab. Gai hauen garrantziaz jabetuta, Olaso Dorrean protokolo bat ezarri dugu, eta ondorioz urtero berrikusten dira .

Ikuskapen bakoitzeko fitxa bat jaso eta mantenu liburu batean gordetzen da.

2. FUNDAZIOAREN EKINTZAK

2.1 “ONTZAKO URREAREN TRUKE” Erakusketa Olaso Dorrean.



Olaso Dorrea Fundazioa, Euskaltzaindia eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren elkarlanaren ondorioz Georges Lacombe euskaltzain osoaren artxibo digitalizatua eskuragarri ikusgai dago Euskaltzaindiaren eta Olaso Dorrea Fundazioaren webgunean.

Hau dela eta, Euskaltzaindiarekin eta Bergarako Udaletxearekin batera Olaso Dorrea Fundazioak Georges Lacombe bildumari buruz (konkretuki artxiboa) Olaso Dorrean Azaroaren 10etatik Abenduaren 1era “ONTZAKO URREAREN TRUK” izenburuarekin erakusketa antolatu du.

Hedabideen aurrean erakusketaren aurkezpena egin zutenak, Andres Urrutia (Euskaltzaindiaren lehendakaria), Gorka Artola (Bergarako Alkatea) eta Maite Aristegi (Olaso Dorrea Fundazioaren patronoa) izan ziren.

Erakusketarekin batera, Olaso Dorrean ere bi hitzaldi antolatutak ziren :

Azaroak 23ko hitzaldia, Jabier Kaltzakortak eman zuen “Georges Lacombe eta bere artxibo/biblioteka” izenburupean.

Azaroak 29ko hitzaldia, Pako Sodupek eman zuen “Telesforo Monzonen kultur gintza” izenburupean, aipamen berezia eginez Lacombe funtsari.



2.2. “ITZIARREN SEME ALABAK TORTURARI BEGIRA”

ITZIARREN SEME ALABAK TORTURARI BEGIRA

Otsailak 14. 19:00etan.
SEMINARIOAN
**FILMA PROIEKZIOA:
BI ARNAS**

Imanol Arzuaga,
Kima
Dokumentalaren ekoizlea

Nekane Txapartegi
Guardia zibila torturatu
zuen, gerora 15 urtetan
exiliatuta egon da

Otsailak 16. 19:00etan
OLASO DORREAN
**HITZALDIA:
TORTURAREN ERABILPEN
POLITIKOA**

Iñigo Elkoro Alastui
Urtetan Gestoretako eta
Torturaren Aurkako Taldeko
abokatu izandakoa

Joxe Aldasoro
Torturatu eta “Biyer egueldi”,
Iruñeko Egile Berrientzako
Literatur Lehiaketan saritua

OLASO DORREA FUNDAZIOA

Gure Artera

Izenburu horrekin, Tortuari buruz bi ekimen dezberdin antotu ziren Gure artera eta Olaso Dorrea Fundazioaren eskutik. Otsailak 14an, “Bi arnas” izeneko filma proiektatu zan Bergarako Seminarixo aretoan eta han egon ziren aurkezten Imanol Arzuaga dokumentalaren ekoizlea eta Nekane Txapartegi guardia zibilak torturatu izandako.

Otsailak 16an Olaso Dorreko aretoan “Torturaren erabilpen politikoa” izenburuarekin hitzaldia. Hizlariak izan ziren Iñigo Elkoro, urtetan Gestoretako eta Torturaren Aurkako Taldeko abokatu izandakoa, eta Joxe Aldasoro torturatu eta “Biyer egueldi”, Iruñeko Egile Berrientzako Literatur Lehiaketan saritua.





2.3 Txalaparta argitaletxearekin ODFk zuen hitzarmenarekin jarraitu da.

Txalapartarekin ODFk zuen hitzarmena mantendu dugu. Aurten, Xabier Irujoren “Gamazada” liburua argitarapena babestu dugu.



Bestelako babesletzak:



3. MONZON - GANUZA SARIA



Bergarako udalarekin sinaturiko hitzarmenaren baitan, Monzon Ganuzza Saria (EUSKAL UTOPIKOEI SARIA) jarri da martxan 2021 urtean. Euskal Herriaren alde oso eremu desberdinetatik beraien bizi osoan zehar lan egin duten herritarrak omentzea du helburu sariak.

Monzon-Ganuzza sariaren bidez Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omendu nahi dira. Saria erabakitzeke unean, kontuan izango dira Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren baloreak, hala nola herri honekiko maitasuna, euskarari eta kulturari emaniko lehentasuna, Nafarroak euskal historian izan duen garrantzia, edo eta batasunaren balioa.

Era berean, euskal kulturgileak sustatzeko saria ere bada:

Saria sinbolikoa izango da, eta Telesforo Monzon zein Josefa Ganuzaren balioak ordezkatzeko dituen obra artistiko bat izango da. Saria euskal artista berriak sustatzeko erabiliko da. Urtero artista berri bati eskainiko zaio eta horrela saria bera euskal artista berrien sustapenerako eta euskal kulturgintza hauspotzeko ekimen bihurtuko delarik. Modu horretan belaunaldien arteko zubi lana eraiki nahi dugu.

Oinarriak:

Monzon-Ganuzaren bidez Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omenduko dira.

Saria erabakitzeke unean, kontuan izango dira Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren baloreak, hala nola herri honekiko maitasuna, euskarari eta kulturari emaniko lehentasuna, Nafarroaren garrantzia euskal historian edo eta batasunaren balioa.

- Saria urtero banatuko da, Telesforo Monzonen heriotzaren datan (Martxoak 9) edo inguruan. Sari duna nor den beranduenera bi aste lehenago emango da jakitera.
- Saria erabakitzeke BATZORDE bat izendatuko da, Olaso Dorrea Fundazioko Patronatuak izendatutako hiru pertsona eta Bergarako Udalak izendatutako bi pertsonaz osatua.
- Batzordea lau urtean behin berrituko da. Batzordekideek errepika dezakete mandatuak.
- Batzordeak, urtero, urte horretako urtarrilaren 31erako erabakia izango du saria nori eman, batzordeko edozein kideek aurkezturiko izenen artean. Erabakitzeke unean lehen artikuluan aipatutako irizpideak izango dira kontuan.
- Saria sinbolikoa izango da, eta Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren balioakordezkatuko dituen obra artistiko bat izango da. Saria euskal artista berriak sustatzeko erabiliko da.
- Urtero artista berri bati eskainiko zaio saria diseinatzeko aukera, horrela saria bera euskal artista berrien sustapenerako ekimen bihurtuko delarik. Modu horretan belaunaldien arteko zubi lana eraikiaz.
- Batzordea izango da artista eta honen obra aukeratuko duena.
- Euskal artista berriak bere obraren berri batzordeko kideei emateko Olaso Dorrea Fundaziora zuzendu beharko dira, saria eman aurreko urteko abenduaren 31a baino lehen.
- Obra artistikoa ordaindua izango da, orotara, 3.500 euroko diru kopuruarekin.
- Sari ematea Bergarako herrian burutuko da.

Egun Fundazio/Udal batzordea honakook osatzen dute:

- Bergarako alkatea
- Bergarako kultur zinegotzia,
- ODFko Lehendakaria Iratxe Esnaola eta
- Patronatuko kide Irati Jimenez eta Maite Aristegi.

Horretaz gain Saria den obra artistikoa aukeratzeko batzorde bat osatu da, ondorengo adituekin:

- Karlos Galarraga (Begarako Beart arte elkartearen kidea)
- Jesus Mari Lazkano (margolaria)
- Mikel Lertxundi (arte historialaria eta komisarioa)



2023 SARIA:

Xabier Amuriza Zarraonaindia (Etxano, 1941)

Xabier Amurizak bizi osoko ekarpen oparoa egin dio Euskal Herria, euskal kultura eta euskarari.

Etxanoko Torreburu baserrian jaio zen 1941 urtean eta sei urterekin, aitarekin, Etxanoko Azutzaganeko tabernan egin zituen lehen bertsoak jende aurrean, lehen plaza Epeltze auzoko San Antolinetan egin zuelarik 1966an, Gizaburuagan, Abel Muniategirekin. Bertsolaritza eta kopla arloan Amurizak egindako ekarpenak hizkuntza biziberritzen laguntzea ez ezik, berauen zabalkundean ere nabari eragin du.

1980ko hamarkadan Xabierrek berritasun handia ekarri zion bertsogintzari, eta seguraski ezinezkoa da egungo Bertsolaritza modernoa ulertzea bere ekarpena kontuan izan gabe. Bai hizkera arloan, bai bere irudi eta metafora-mundu poetikoaren erabileran eta, oro har, bertsoak egituratzeko moduak, (ordu artekoak ez bezalakoak) iraultza suposatu zuten bertsolaritzan. Neurri eta doinuetan ere berrikuntza handiak ekarri zituen: neurri eta doinu asko sortu zituen, ordu artekoetatik oso bestelakoak.

Nabarmentzekoa da bertso eskoletan eragindako iraultza. Helduentzako bertso eskoletako lehen ikasmateriala apailatu zuen: Zu ere bertsolari eta Hiztegi Errimatua. Hamaika hitzaldiekin helduen bertso eskolak sortarazi eta eman zituen. “Bertsotan aritzeko jaio egin behar da” ustea eraitsi zuen, ikas zitekeela demostratuta geratu baitzen, etorkizuneko bertsolari belaunaldien segida ziurtatua geldituz.

Bertsogintzari dagokionez, euskara batua ekarri zuen Txapelketa Nagusira; ikustekoa da 80 eta 82ko Bertsolari Txapelketa Nagusietan zerabilen lexikoa eta esamoldeak. Amurizarekin, bertsolaritza beste aro batean sartu zen. Ez da harritzekoa beraz bi aldiz izan izanan Euskal Herriko Bertsolari Txapelduna, 1980 eta 1982an.

Euskal kulturari egindako ekarpenaz gain nabarmena da urte latzetan herri honekiko azaldutako konpromisoa. 11 urterekin seminarioan sartu zelarik, bere heldutasunean Gogor apaizen mugimenduaren bultzatzaile izan zen frankismoan eta Derioko eta Bilboko apezpiku etxean egindako entzierroetan egon zen. Horren ondorioz zazpi urte egin zituen preso Zamoran eta Basaurin, hiru espetxealditan. 1976an utzi zuen apaizgoa.


Politika arloan ere urte luzez azaldu zuen herriarekiko konpromisoa eta Zornotzako udalean zinegotzi, Bizkaiko Batzar Orokorretako batzarkide eta Gasteizko legebiltzarreko legebiltzarkide izan zen Herri Batasunaren izenean, 80.hamarkadan.

1982 urtean berriro atxilotu zuten Bizkaiko Juntetxean, Espainiako Erregearen etorrera dela eta, Herri Batasunako beste ordezkariekin Eusko Gudariak abesteagatik.

Bere kultur jarioa amai ezina da. Egin egunkarian “Telefono Gorria” zutabea idazten zuen. Itzulpengintza arloan klasikoak itzultzeaz gain, ETBko Dragoi Bola haurrentzako telesaila itzuli zuen.

Hainbat eleberri, narrazio, olerki liburu eta saiakera idatzi ditu eta bereak dira euskal kantugintzako hainbat abesti eta koplak ezagun, hala nola “Euskal Herrian Euskaraz”, “Mendian gora haritza” edo “furra furra”. Manuel Lekuona eta Lauaxeta Sariak jaso ditu azken urteotan.

Bizitza oparo bat Euskal Herria, euskara eta euskal kulturari eskeini eta eskeintzen diona. Urte askotarako Xabier!





2023ko sariaren egilea

– **Iker Serrano**

Artista eta ikerlaria. Arte Ederretan doktorea. Euskal Herriko Arte Ederren Fakultateko irakasle laguntzaile.

Saria artelan bat izan ohi da, urtero artista ezberdin batek egiten duena, eta aurtengoan Iker Serranoren ‘Haitz-erroa’ obra izango da.

Bere pinturarekin haitza, aizkora, horien zorrotasuna eta antzinatasuna lotzen ditu (euskararekin ere lotura bilatuz bide horietatik). Iragana, oraina eta etorkizuna iradokitzen ditu espazioan kokatu dituen hamar harri zorrotzekin.

Figurazio kolorista baten bidez, pintura-ingurunean bertan oinarritutako lana egin du, autoreferentziatik artista gisa duen esanahia zalantzan jarriz, bidaiaren ideiarekin, pinturarekin, arketipoarekin eta subkontzientearekin lotura estua duten elementu narratiboak erabiliz. Hala, autorteak «ikuspegi denboraz kanpoko, telurikoa planteatzen du, unibertsoari eta haren memoriari irekia».

Denboraren, kultura-denboraren, denbora geologikoaren gainean margotzen du, baina baita guri buruz hitz egiten duen denbora bat ere, gure espazio minerala, gure arrastoa homo faber gisa eta hori guztia, pintura garaikidetasunetik antzina-antzinako praktika aldarrikatuz.

4. BISITA GIDATUAK

Olaso Dorrea Fundazioaren asmoa da bere ondarea ezagutzera ematea, dorretxea Bergararrei eta bisitariei irekiaz, eta horrela, Telesforo Monzonen nahiari erantzunaz. Bergarako Udalak turismoa eta kultura herrian bultzatzeko duen asmoarekin bat egiten duen egitasmoa da hau, herri honek duen ondarea ahal den heinean erakusgai jarriaz eta bisitatzeko aukera eskainiz.

Horri jarraikiz, Laboratorium museoa ikusteko aukerarekin batera Olaso Dorretxean bisita gidatua ere egiteko aukera ireki da 2021 urtean.

Hilean hiru bisita antolatzen dira (2 euskaraz eta 1 gazteleraz), 2021eko


Martxoaren 13tik aurrera. Iraupena ordu t' erdi ingurukoa da eta taldeak gehienez 12 pertsonakoak izango dira (nahiz eta COVID19 dela eta murriztu egin diren).

Aurtengo bisitari-kopurua honako hau izan da: Guztira 195 bisitari, honela banatuta: emakumeak 103 eta gizonak 92.



OLASO DORREA BISITA GIDATUAK

OLASO DORREA FUNDAZIOA



4.1. Bilduma eta Museo errejestrarioaren onespena



Euskadiko Museo eta Bildumen Errejistroak Olaso Dorrearen errejistroa onartu du.

Horren arira Olaso Dorreak Kultura eta HP Sailburuaren bisita jaso du 2024 urte hasieran.

4.2. ZAZPIKA aldizkarian Olaso Dorreari buruzko erreportaia.



5. HITZALDI ETA AURKEZPENAK

**KRISI KLIMATIKOA,
ENERGETIKOA ETA SOZIALA.**

DENAK BALIO DU
EKONOMIA ZIRKULAR GISA?

**ANTONIO
ARETXABALA**
Geologia eta ikertzailea.

**OLASO DORREAN,
APIRILAK 19, 18:30etan.**
Hitzaldia gaztelaniaz izango da

Antolatzailea



**LIBURU AURKEZPENA:
“OSO LATZA IZAN DA”**

SOLASALDIA
Azaroaren 9an
atsaldeko 19:00etan
Olaso Dorrean, Bergara



Xabier Mendiguren
Idazle eta editorea



Mikel Soto
Idazle eta nafarroako
torturatuen sare kidea



**OLASO
DORREA
FUNDAZIOA**



6. JARDUNBIDEAK

6.1. TMeLab-en jardunbideak

Olaso Dorrea Telesforo Monzon eLab, Euskal Herrigintza Laborategiaren hainbat ekimen burutzeko erabili da.



6.2. Bestelako jardunbideak



GERNIKAKO ARBOLA

EKIMENA

Urretxun

<p>ANTOLATZAILE - LAGUNTZAILEAK</p>	<p>GERNIKAKO ARBOLA Euskal Erresistentzia I. Batzama</p> <p>AZAROA 22 osteguerterna 18.00 / Udaberriaren bateko uretan HITZALDIA "GERNIKAKO ARBOLA" euskaladunon ereserkia</p>	<p>AZAROA 24 ostirala 21.00/Lebeaga aretuan KANTALDIA "PARRAGIRRE KANTUZ" Gontzal Mendibil & GOIARGI abesbatza</p>	<p>AZAROA 26 igandea 11.00 / Pagoetia aretuan GERNIKAKO ARBOLA euskar erresistentzaren I. batzama</p> <p>11.00 / Pagoetia hosta KANTUJIRA kalez kale musika taldeak, kantu-taldeak</p> <p>12.30 / Pagoetia hosta KALEJIRA Dantzariek, erakutsiek, musika taldeak</p> <p>13.00 / Pagoetia piztzen EKITALDI PUBLIKOA Gernikako arbola euskaladunon ereserkia</p> <p>14.30 / Pagoetia festan HERI BAZKARIA</p>
--	---	--	---

7. ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK

7.1. Argazki fondoaren osaketa eta digitalizazioa

Ia zazpi milako argazki fondoari dagokionez, jarraitzen da data basean argazkien informazioa sartzen. Horretarako, lehenik eta behin argazkian bertan begiratzen dugu, ea idatzizko daturen bat agertzen den. Oso gutxitan agertzen da hau, beraz, interneten begirata, Olaso Dorrean diren zenbait argitalpenetik (Enbata, Punto y Hora, etab.) eta Monzon familiarekin lotura izan zuten hainbat lagunekin alderatuz egiten ari gara lan hau.



Zailtasunak zailtasun, sortzen ari garen data basea osatua da eta etorkizunean kontsulta publikorako tresna baliotsua izango da.

7.2 Artxiboen kudeaketa

Artxibora kontsultak egitera etorri diren ikerlariari arreta eman. Olaso Dorrean kokatuta dagoen artxibategi historikoan kontsulta egiteko eskaerak gero eta maizago ematen dira, eta dedikazio garrantzitsua eskatzen dute. Izan ere, artxibategian bertan ezin dute bisitek “eskua sartu”. Artxibategiko dokumentuen zerrenda eskaintzen zaio bisitariari eta honek interesatzen zaizkion dokumentuak identifikatuta, Olaso Dorreko langileak artxibategitik atera eta kontsultarako uzten dizkio. Horretarako, eta era duinean lan egin ahal izan dezan, ikerlariari bulego bat eskaintzen zaio. Era honetan artxibategiko dokumentazio guztia kontrolpean dagoela eta modu egokian zaintzen dela ziurtatu dezakegu.

Bisita fisikoez gain, ugari izan dira Olaso Dorrea Fundazioaren jabegopean baina Euskaltzaindiak gordailuan duen Lacombe fondoaren bildumako lanen kontsulta eskatzen dute ikertzaileak. Kontsulta eskaera guzti hauek Euskaltzaindiako langile batek jasotzen ditu eta Olaso Dorrea Fundazioari baimen eskaera luzatzen dio. Normalean ez da arazorik izaten eta baimenak onesten ditu Fundazioko Lehendakariak. Erabiltzaile nagusiak Euskal Herriko ikertzaileak dira, bereiziki historialari eta filologoak, horietako batzuk euskaltzainak eta hainbat unibertsitateko irakasleak (Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Deustuko Unibertsitatea). Bada bestelakorik ere adibidez, euskal idazleak.



Artxibora kontsultak egitera etortzen direnei, eskaintzen zaien bulegoa.

Lacombe
Artxiboa
Euskaltziandiako
web gunean
ikusgai



7.3 Liburutegiak

Bi dira Fundazioak dituen Liburutegiak. Gaur egun Euskaltzaindiak gordailuan duena, 1.930 liburuekin osatzen dena: Fondo G. Lacombe liburutegia eta

Monzon-Ganuzan liburutegia azken hau 2.215 liburuekin osatuta. Azken liburutegi hau XVI mendetik XX mendearen hasiera arte inbentariatuta egon arren, XX mendeko azken hamarkadak falta dira, eta lan hau da, epe motzean proiektatua duguna.

Momentu honetan Monzon-Ganuzan liburutegia osoagoa egin nahian, Dorrean kutxetan gordeta ziren XX mendeko izenburu ezberdineko aldizkarien bilduma atontzeari ekin diogu. Jada guztiak antolatu dira.

7.4 Ekarpen berriak

Olaso Dorrearen artxibategiak aurten ekarpen gisa eta beste behin Paulo Agirrebaltzategiren eskuetatik utzitako Euskal Kultur Batzarrearen Funtsa jaso du



Aurten ere Joseba Egibar argazkilaria bere argazki-funtsaren dohaintza jaso dugu milaka argazkiekin.



Baita ere Josuren Murgizu Bakaikoak Gerra Zibilaren gaiaz daukan liburutegia dohaintzan utzi digu.

